

## Uda-sasoiko mailegua Préstamo de verano

6 liburu irailera arte.

3 pelikula irailera arte.

Nobedadeak eta erreserbadunak salbu.

6 libros, hasta septiembre.

3 películas, hasta septiembre.

Excepto novedades y reservados.

 eLiburutegian mailegu digitala 21 egunez.  
préstamo digital en eLiburutegia: 21 días.

Udako ordutegia  
2024/06/24 - 2024/09/06

Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 13:00

Liburutegia itxita  
2024/07/25 - 2024/08/25

## Soraluzeko udal liburutegia

Balategieta kalea, 2  
20590 Soraluze

943 75 20 74

liburutegia@soraluze.eus



## Udako irakurketak Lecturas de verano



SORALUZKO  
UDALA

+0



GEHITXO, OLIVER TALLEG \_\_\_\_\_ 2023, TXALAPARTA

Ahulak dira zuhaitzak, ongi zaindu behar dira. Lagun bat bezala zaindu behar dira. Neure zuhaitzak eta biok ongi zaintzen dugu elkar. Batzuetan, bere pinaburu bat ematen dit. Bat ez da sobera, baina, kasu, denak gehitxo izan daiteke. Oreka bilatu behar.



BASO ILUN ETA SAKONEAN, DELPHINE BOURNAY \_\_\_\_\_ 2022, TXALAPARTA

Baso ilun eta sakonean, begi distiratsuak zabaltzen dira, hortzen klaska aditzen da, uhuriek gaua urratzen dute... eta, hargatik, ama-otsoa izurik batere gabe heldu da, bere kumeak ari baitira deika. Guk bezala, lotarakoan, erritu oso bat nahi izaten dute, ipuin, musu eta guzti.



XIRIMIRI, FERNANDO PÉREZ HERNANDO \_\_\_\_\_ 2022, PAMIELA

Zorigaitz simple batetik sortzen da elkarrengandik ikasteko eta elkar aberasteko aukera euriak bustitzen duen hegazti familia baten etxean. Umeek batak besteagandik ikasiko dute, ama jakintsu bat izango dute, gainera, laguntzeko.



ARRATS ZAPO BAT, MAITE MUTUBERRIA \_\_\_\_\_ 2024, PAMIELA


Gero eta narrazio-erritmo handiagoz, irakurlea ezusteko amaiera arte gidatzen duen album ilustratu dibertigarri bat da hau. Protagonistak modu berezian, joko fonikoak eta onomatopeiak erabiliz mintzo dira, narrazioa lagunduz eta euren buruari nortasuna emanez.

+5




IZAKI BITXIAK, CRISTINA STIJA RUBIO \_\_\_\_\_ 2024, TXALAPARTA

Basoko animaliek festa izan dute: cumbia, saltsa eta arin-arina dantzatu, eta txokolate tarta piloa jan dute. Baina, etxeratzean, hura ezustea! Aterpe zituzten zuhaitzak ez daude, eta ingurunea hondatuta dago. Nola elikatuko dira? Non eginen dute lo?




BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN, ALAINE AGIRRE \_\_\_\_\_ 2021, IKASELKAR

Behin eta berriz egiten du urtxintxak bere zulotxorako bidea, negua pasatzeko fruituak biltzen. Egiten duen lanaren emaitza zenbatzea irakurlearen esku dago: sagar bat, bi piku, hiru intxaur... Baina bada irakurlea sorpresaz hartuko duen beste protagonista bat ere.



IPURDIAK: EZINBESTEKO GIDA, EVA MANZANO \_\_\_\_\_ 2023, NUBEOCHO

Ez ditugu ipurdia ondo ezagutzen. Dibulgazio liburu honekin, haien historia ezagutu eta giza- eta animalia-ipurdiez hitz arituko gara, baita ipurdi motez eta koloreez ere! Badakizu ipurdia izateak adimentsuago egiten gaituela? Ez daude bi ipurdi berdin, deskubri itzazu!



SUPER PATATA: ESTOLDERIAN, ARTUR LAPERLA \_\_\_\_\_ 2024, BANG

Lapur batek ia berea egin du, sari-ehiztari bat zeharo amorratuta dago eta Mikrango hainbat ontzi estolda-zuloen gainean hegan dabilta. Eta are okerrago: Bare erregea, izpi ahaltsu batez armaturik, Superpatata behin betikoz suntsitzeko prest dago. Lortuko al du?

+8



MUNDUKETARIAK, PATXI ZUBIZARRETA \_\_\_\_\_ 2024, EREIN

Harmonyren ikasgelan mundu osoa kabitzen da eta mundu osoa entzun: arabiera, txinera, errumaniera, urdua, edo hizkuntza... Hegazkin bat ere badute, gelazkina, edonora joateko. Gaur Nigeriara joatekoak ziren, Harmony pilotu zela, eta Harmony ez da inon ageri...



MEMET, NOÉMIE MARSILY \_\_\_\_\_ 2022, A FIN DE CUENTOS

Lucy eta ahizpa kanpin batera joan dira egun batzuk igarotzera; Roman urtero joaten da uda pasatzera. Hasierako mesfindantza garaitu du jakinminak; harreman iragankor eta zalapartasua sortu da bien artean. Haur zein helduentzako istorio sotila da *Memet*.



ARTISTA EGINO ZAITUEN LIBURUA, RUTH MILLINGTON \_\_\_\_\_ 2024, TTARTTALO


Mundu osoko hogeitaka artista inspiratzailearen teknikak ezagutu eta urratsez urrats praktikan jartzeko beste horrenbeste jarduera. Erabili liburu hau inspirazio iturri gisa eta bilakatu zeu ere artista!



ZAKUR USTEL, COLAS GUTMAN \_\_\_\_\_ 2024, DENONARTEAN


Hau Zakur Ustel da. Zaborrontzian bizi da, sardina-usaina dauka, arkakusoz josita dago eta alfonbra zahar baten antzeko ilajea dauka. Ez hori bakarrik, tuntun samarra ere bada. Bihotz onekoa ere bai, ordea: beregan dena da poza eta bizipoza. Izugarri maiteko duzu.

+12



ZERRIA, PATXO ZUBIZARRETA \_\_\_\_\_ 2022, EREIN

Bereket glaziologoa Suitzako Alpeetan lanean ari dela, lankide batek momifikatutako hiru gorpuzki topatu ditu alboko glaziar batean. Aurkikuntzak hunkituta, ahal duen guztia egingo du pertsona horiek nortzuk izan ziren jakiteko.



PUTZUA, GOIATZ LABANDIBAR \_\_\_\_\_ 2024, EREIN

Esnatu denean, Laurek kuleroak odolez zikinduta ikusi ditu. Hilekoa etorri zaio lehenengoz. Baina Laurek ez du hilekorik izan nahi. Ez du nahi inork jakiterik hilekoa etorri zaiola. Bere sekretua da. Hilekoarekin bizitzen ikasiko du, baita hilekoaz hitz egiten eta are, ospatzen ere.



CALLA, CÁNDIDA, CALLA, MAITE CARRANZA \_\_\_\_\_ 2017, SANTILLANA

Cándida cree que el verano es para disfrutar con las amigas. Pero sus padres la envían al pueblo con su abuela y hermanos. ¿Hay algo peor que unas vacaciones en familia, en un pueblo? Cree que no podrá soportarlo hasta que conce a la pandilla, y, sobre todo, a Jan.



PARA BELLUM, JOHN ANDUEZA \_\_\_\_\_ 2024, ELKAR

Euskal Herrian ia 100 urtez luzatu den gerra batek ondorio latzak utzi ditu etxe askotan. Etxe gehiegitan. Elgetako Txapartegi eta Otalora baserrietan, umetako lagun minak aspaldi hasi ziren elkarren kontra borrokan, auzokoak arerio bihurtuta. Bakearen izenean egin zuten gerra.

HELDUAK



LA SECA, TXANI RODRIGUEZ \_\_\_\_\_ 2024, SEIX BARRAL

Nuria regresa al pueblo donde veraneaba en su infancia, inmerso en un proceso de modernización entre las viejas tradiciones y los nuevos estilos de vida: locales y veraneantes, agricultores y ecologistas que sienten nostalgia por un pueblo que no quieren que cambie.



ULU EGITEKO BOLONDRES BILA, HARKAITZ CANO \_\_\_\_\_ 2023, SUSA

“Eskerrak / inork / ez dien / poetei / kasurik / egiten”: kontrazalean idazleak egiten duen aitortza. Barruan zerrenda eta errepikak, berariazko akatsak, behetik gorako olerkiak, hitzik erabili gabe ondutakoak, baztertutako asmoak betetzen dituztenak... Ez zaitu epel utziko.



UN ANIMAL SALVAJE, JOËL DICKER \_\_\_\_\_ 2024, ALFAGUARA

Una intrincada tela de araña, tejida con hilos de apariencias engañosas, envidias de clase, complejas estafas y atracos audaces. Un thriller que te atrapa desde la primera página, con un ritmo vertiginoso.



SOBREVIVIENDO AL SIGLO XXI. CHOMSKY & MUJICA, SAÚL ALVÍDREZ \_\_\_\_\_ 2023, DEBATE

Dos referentes mundiales del pensamiento contemporáneo se reúnen para conversar sobre temas trascendentales que afectan a la humanidad y debatir alternativas de cara al futuro: cambio climático, la corrupción, los populismos, la crisis del capitalismo, entre muchos otros.



LA DISTANCIA QUE NOS SEPARA, MAGGIE O'FARRELL \_\_\_\_\_ 2024, LIBROS DEL ASTEROIDE

Stella y Jake no se conocen, pero ambos huyen de sus vidas: Jake busca un lugar tan remoto que no aparece en los mapas; Stella se esconde de algo que solo su hermana entiende. O'Farrell traza un puzzle lírico: cada misterio nos lleva a otro, cada tragedia nos lleva a otra.



COMUNIÓN, BELL HOOKS \_\_\_\_\_ 2023, PAIDÓS

*Comunión: la búsqueda femenina del amor* es una obra que desafía a todas las mujeres a que asumamos el valor de reclamar la búsqueda del amor como el viaje heroico que todas debemos escoger para liberarnos de verdad.



SUISEN, EL GATO DE GORÔ, AKI SHIMAZAKI \_\_\_\_\_ 2023, NÓRDICA LIBROS

Gorô es un hombre egoísta, despota, machista, abusivo y dominador, aunque él cree ser una excelente y exitosa persona: preside una importante empresa, tiene dinero y mantiene una familia estable y ejemplar. Hasta que algo hace que su mundo se venga abajo.



BARKAMENA EXISTITUKO BALITZ BEZALA, MARIANA TRAVACIO \_\_\_\_\_ 2024, EREIN

Gorroto trinkotuei eta haiekien loturiko mendekuei buruzko istorio bat da, western paisaien unibertso gertatua. Kontakizunak mantso egiten du aurrera eta hasieratik susmatzen dugu tragedia hurbil dela, nahiz eta ezin dugun jakin nolakoa, zenbaterainokoa, dena lehertu arte.



HORMA, MARLEN HAUSHOFER \_\_\_\_\_ 2023, EREIN

Andrazko protagonista Alpeetako etxola batera joan da; adiskideak heritik bueltatzen ez direnean, haien bila abiatu eta horma ikusezin batekin topo egin du etxolako lursailaren mugan. Isolatuta, animaliak izango ditu lagun konfinamendu horretan.